

**OSASUN SAILA**

Osasun Sailburuordetza
Osasun Publikoaren eta Adikzioen
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SALUD

Viceconsejería de Salud
Dirección de Salud Pública
y Adicciones

-MASKARAREN ERABILERA-

Maskara erabiltzeak arnastean, hitz egitean, oihukatzean, ez tul egitean edo doministiku egitean sortutako aerosolen igorpena murrizten du, eta eraginkorra da arnas birusak transmititzeko arriskua murrizteko.

Horren ondorioz, gaur egun, 6 urtetik gorako pertsonentzako maskararen erabilera:

1) Nahitaezkoa da:

- Osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduetan
- Zentro soziosanitarioetan: langileentzat, zentroko eremu guztietan eta bisitariarentzat, eremu partekatuetan. Ez da nahitaezkoa erabiltzaileentzat.
- Garraiobideetan: airekoak, trenbidekoak eta kable bidezkoak. Baita bidaiarien garraio publikoan eta 1,5 metroko distantzia mantentzea ezinezkoa den ontzi eta itsasontzien espazio itxietan ere.

Honako egoera hauetan izan ezik:

- Maskara erabiltzeagatik larriagotu daitekeen gaixotasunen bat edo arnasa hartzeko zailtasunen bat duten pertsonentzat, edo maskara behar bezala erabiltzeko autonomiarik ez dutenentzat desgaitasuna edo mendekotasuna dutelako
- Maskararen erabilera bateraezina bada jardueren izaeragatik, osasun-agintariek emandako jarraibideen arabera.

2) Gomendagarria da:

- 1,5 m-tik beherako distantziako pertsonekin denbora luzez egoten diren persona kalteberentzat.
- Egoera horietan dauden gainerako biztanleentzat:
 - a) Lagunen eta/edo senideen ospakizun eta bileretan, bertaratutako kalteberatasunaren arabera.
 - b) Barne-espazio itxiak eta erabilera publikokoak, non pertsonak denbora luzez gertu egoten diren.
 - c) Ekitaldi jendetsuetan eta aglomerazioetan.
- Covid-ekin edo beste arnas infekzioaren batekin bateragarriak diren sintomak dituzten pertsonentzat, hala nola, ez tula, katarroa, hotzeria, sudurreko kongestioa edo eztarriko afekzioa, beste infekzio batzuetatik babesteko.
- Covid diagnostiko positiboa duten pertsonak (Osakidetza, laborategi pribatuen edo farmazian erositako testen bidez diagnostikatuak) 10 egunez erabili beharko dute maskara, lagina hartzen denetik edo sintomak hasten direnetik.

Aurreko informazioa kontsultatu edo zabaldu nahi baduzu, dokumentu horiek irakurri ahal izango dituzu:

- [Barruko espazioetan maskarak erabiltzeari buruzko gomendioak](#)
- [286/2022 Errege dekretua](#)
- [SARS-CoV-2 Koronabirusaren Protokoloa.](#)